


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

# Santa Eskea Lehen Hezkuntzan Ondarea geure egiten

GRADU AMAIERAKO LANA

Egilea: Antton Aizpurua Aldape

Irakaslea: Ana Isabel Ugalde Gorostiza

2018

## Laburpena

Euskal Herriko herrietan, Santa Ageda bezpera egunean, ohikoa da Santa Eskean ateratzea. Izan ere, kristauen artean hain gogokoa izan zen Santua jai edo erritu askoren iturburu bilakatu da, hauen artean garrantzitsuenetako bat, Euskal Herrian behintzat, Santa Eskea izanik. Lan honek Santa Eskea aztertu eta Itziar eta Debako Lehen Hezkuntzako ikasleekin aurrera eramateko proiektu bat azalduko du. Jaiak gaur egun zer diren eta orain arte izan duten garapena, iraganeko jai ereduak azaldu eta gaurko jai ereduak kontrajarriz. Etxerik etxe eskatzen aritzeko jarduna ere ezin liteke alboan utzi; urte luzeetan zehar nola eman den eta zein sasotan eta egunetan egin izan den. Jai honek ondare inmaterial aberatsa laga digu eta ondare bizia izan dadin, ez fosilizatua, eskola izan daiteke bitarteko egokia. Horregatik, saiakera gisa, Itziarreko eta Debako Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, ikasle guztiek parte hartzeko moduko proiektu bat proposatuko da. Proiektua maila bakoitzari propio egokitutako arazo egoeren bidez egituratua.

**Hitz gakoak:** Jaiak, Santa Ageda, Santa Eskea, ondare inmateriala eta Santa Eskearen proposamen didaktikoa.

## Aurkibidea

1 Sarrera.....	1
2 Marko teorikoa.....	3
2.1 Jaiak.....	3
2.1.1 Iraganeko jai ereduak.....	3
2.1.2 Gaur egungo jai ereduak.....	4
2.1.3 Jaiak Euskal Herrian.....	6
2.2 Eskea.....	7
2.3 Santa Ageda.....	9
2.3.1 Santa Agedaren bizia.....	9
2.3.2 Santa Agedaren presentzia.....	10
2.4 Santa Eskea.....	11
2.4.1 Santa Eskeko jarduna.....	11
3 Proposamen didaktikoa.....	15
4 Ondorioak.....	31
5 Bibliografia.....	32

# 1 Sarrera

Santa Eskean ateratzeko ohitura Euskal Herriko hainbat eta hainbat herritan pasioz mantentzen den usadioa da. Santa Ageda bezpera egunean baserritar jantzi, makilak, trikitixa, panderoa eta poltsa eskuan hartu eta ahotsa finduta auzoetako baserriz baserri edo herrietako etxeetako txirrinak joz koplak zahar zein berriak abesten dira janaren, edanaren eta diruaren truke.

Santa Eskean ateratzeko ohitura zaharra denez, aldaketa batzuk jasan ditu denboraren poderioz. Hasierako aldietan baserriz baserri ateratzeak zuen zentzua, galdu egin baita gizarteak pairatu dituen aldaketen ondorioz. Hala ere, tradizioak hala bultzatuta, eskean ateratzeko ohiturak gure artean dirau oraindik ere.

Gaur egun, gutxi izango dira Santa Ageda zein izan zen jakingo dutenak, familietako zaharrek zalantza askorik ez dute izango, baina ikastetxeetatik kantuan ateratzen diren umeen artean, zenbat izango dira, ezer gutxi bada ere, Santa Agedaren inguruan zer edo zer jakingo dutenak? Debako zein Itziarreko ikastetxeek urtero antolatzen dute Santa Ageda egunaren inguruan kantura ateratzeko jardunaldia. Aurreko egunetan koplak zahar batzuk esku-orrietan banatu eta ikasleek buruz ikas ditzaten entsegu bat edo beste egiteko aitzakia hartzen dutela.

Kopla zahar horiek ikasteko eta ikasleak ikasgeletatik herrira ateratzeko ekimen aproposa izan daitekeen arren, Santa Eskea zer den, zergatik egiten zen eta nondik datorren ikas dezaten proposamen berri bat eskainiko da lan honetan. Horretarako, jaiak zer diren eta gaur egungo gizarteak garai bateko jaietan zein eragin izan duen aztertuko da, labur bada ere. Santa Ageda izan zenaren inguruko azalpena luzatuko da, Santa Eskearen hasierako logika eta gaur egun dituen ezaugarrien berri emango da, eta bukatzeko, aipatu berri dudan bezala, Itziarreko edo Debako ikastetxean burutzeko moduko proposamena aurkeztuko da gaia modu zehatzago batean landu ahal dezaten guztiek batera.

Lan hau azken urteotan izan dudan esperientziaz abiatu da, izan ere, Itziarreko Santa Eskeko taldean aritu izan naiz koplari lez. Ordura arte Santa Eskeaz ezer ez banekien ere, bertsoak begien aurrean jarri didan jardun honek liluratu egin nau erabat. Hori hala izanik, Santa Eskeaz gehiago jakiteko gogoak piztu zitzaizkidan eta lana horretan oinarritu nezakeela pentsatu nuen.

Lan honek hiru helburu nagusi ditu: ondare inmaterialaren transmisioa bermatzea, ikasleei koplari bidez bertsoak eta ahozko jardunak duten edertasuna erakustea eta ikasleek ikasgeletatik atera eta herritarrekin arituta ikastea.

## 2 Marko teorikoa

### 2.1 Jaiak

Euskaltzaindiaren Orotariko hiztegiak dioenez, zerbait ospatzeko egiten diren ekitaldi eta jostetak dira jaiak. Dirudienez, ez dira gutxi gure gizarteak ospatzeko dituenak, izan ere, datuek diote Espainiako estatuan 13.000 jai ospatzen direla (Brisset, 2009), tartean Euskal Herriko batzuk ere bai. Jaiak sinesmenen, jarrerren eta gizarte egituren erakusleho eta erakusle izanik, kulturak aztertzeko baliabide ezin hobekak dira. Antropologiaren aztergai bikainak dira.

Gizarte honetan dena aldatzen da, etengabeko garapen prozesu batean, ezer ez da higigaitz, gizartea bera ere aldatzen da. Modernitatearen eraginez, tradizioak indarra galdu du orainean, eta tradizioak protagonismoa galdu ahala, jaiak ere ez diete berezko forma haiei eutsi (Homobono, 2018).

#### 2.1.1 Iraganeko jai ereduak

Atzera begiratu eta gizartearen jokaeren nondik norakoak aztertzen badira, ziurta daiteke azken mendeetan Eliza Katolikoa izan dela Euskal Herrian jaien nondik norakoan eragin handiena izan duen instituzioa, ez bakarrik urteen joan-etorrian, baita egutegia antolatzeko garaian ere. Erlijio greko-erromatarrean oinarrituta dagoen pentsatzeko era horretan, uztaren zikloa, heriotzak eragindako beldurra, arbasoak babesteko errituak, ilargiaren faseak eta gozamen soziala dira jaien oinarria. Beraz, kristautasunaren araberrako ospakizunak baino gehiago dira jaiak.

Kristau zintzoarentzat, ordea, zer dira jaiak? Eliza Katolikoarentzat jaiak Aste Santuko edo Gabonetako Pazkoa egunetako, Santuen egunetako eta igandeetako ospakizunak dira. Egun horietan guztietan, profanoa dena alde batera uztea da helburua, halaber, espirituaz eta sentimendu erlijiosoaz arduratuta tenplu edo leku sakratuetara meza, sermoiak edo jardun dibinoak entzutera joatea, eta ahal denetan, Sakramentu Santua jasotzea. Behin Elizak agintzen duen hori guztia egin eta gero denborarik geratzen bada, denbora hori olgeta zintzo eta eredugarriko baliatzeko izango dela (Brisset, 2009).

Elizak gizarteak aurrez zehaztuta zituen lau gertakari edo garairen baitan txertatu zituen ospakizunak eta jaiak bere egutegia sortzeko. Egutegi hori ziklo kosmologikoaren arabera egituratzen da: Neguan uzta oraindik lurraren barruan hazi gabe dagoenean eta eguzkia baxu denean, jaiak etxe girokoak dira, jaiotzak errepresentatzeko unea da (Jesusen jaiotza abenduaren hogeita bostean, adibidez) eta neguko solstizioak natura iratzarriko duen inauteriei emango die hasiera. Udaberrian, hazia bezala, jaia ere etxetik kanpora aterako da, nerabeen edo gazteen aldia da eta jaunartzetarako edo ezkontzetarako garaia izaten da. Prozesuarekin jarraituz, uda helduen garaia da, eta udazkenean, heriotzaren unea iristen da, hildakoen eguna. Egutegi hori Eliza Katolikoak hala zehaztu duen arren, ezin daiteke aipatu gabe utzi Elizak bere gertakizun garrantzitsuenetako batzuk lehendik ezarritako egutegira moldatu dituela, hau da, Jesukristoren jaiotza, berez, ez zen abenduaren hogeita bostean izan, baina lehendik gizarteak zuen egutegira moldatzeko, hainbat gertakariaren ospakizunak dataz aldatu zituen. Laburbilduz, egutegiak ekintza kolektiboaren erritmoa adierazten du eta erregulartasuna bermatzea du helburu (Martínez, 2007).

### 2.1.2 Gaur egungo jai ereduak

Kontuak kontu, menderakaitz eta betierekotzat genituen sinesmenekiko leialtasuna eta tradizioa ia hauts bihurtu dira gaur egungo gizarte likidoan. Garai likidoa baieztapenik gabeko garaia da, lorpena ahanztura eta afektibitatearekin haustearekin ulertzen da eta harreman luzei gero eta beldur gehiago diegu (Rocca, 2008). Mendebaldeko gizarteko ehuneko handi batek sinesmenak aldatu ditu, gehiengoak elizara joateko ohitura galdu du eta lehengo sinesmenak ahanzturan geratzen ari dira pixkanaka-pixkanaka. Horrenbestez eta halabeharrez, jaiak ere aldatu dira, orain urte batzuk erlijioa sarriagotan zen festarako motibo, gaur egun beste arrazoi batzuk "aitzakiatzat" hartzea ohikoagoa da. Martinezen (2007) hitzetan, jaia gertakizunen ospakizuna egiten den denbora eta espazioa da, norbanakoak euren identitatearen arabera bildu eta identitate hori bera sendotzeko baliatzen dena. Hobeto ulertzeko, jai baten bueltan biltzen diren pertsonak ezaugarri asko dituzte komunean, hala nola, bizilekua, lana, lanbidea, familia, sentimenduak, sinesmenak... Beraz, jaiak identitateen ospakizunak dira, hau da, batera izan, lan egin, bizi, sinetsi eta sentitzearen ospakizunak. Gainera, ez da gizarterik sentimendu kolektiboak, batasuna eta nortasuna osatzen duten ideia kolektiboak erregulartasunez mantentzen eta berresten ez dituenik (Homobono, 1990).

Jaietan janzkera edo zapi desberdinak erabiltzen dira, identitate marka bereizgarritzat jo daitezke eta pertsona taldea jaira ekartzen dute (Aguirre, 1989). Globalizazioaren

garaiotan, ordea, identitate-krisi betean gaudela esan daiteke. Herrietako egoera demografiko berriek sortzen duten kulturartekotasunak tokian tokiko identitatearen izana hausten du eta identitatea deseginez gero, zer da ospakizunetan geratzen zaiguna? Identitateak dira jaien funtsa (Homobono, 2018). Hori horrela, kontuan izatekoa da identitatea bera baino identitatearen kontzientzia dela mantentzen duguna, are gehiago krisi eta aldaketa garaietan. Orain berri aipatutako janzkerek edo errituek identitatearen fikzioa bermatzea ahalbidetzen dute suertatzen diren gizarte aldaketen aurrean. Horretaz gain, jaiak aurretiko giza batasun bat dela erakusten duten arren, beste batasun batzuk sortzen eta aurretikoak sendotzen dituzte (Homobono, 1990).

Gaur egungo jaiak erreparatuta, ikus dezakegu, iraganekoa ez den logika batean, jai-guneak gazteen bilguneak direla gehienetan eta espazio baten jabe izatea ospatzen dutela. Bestalde, jaiak gizarteko gaien inguruko aldarrikapenak egiteko tarte ere eskaintzen dute. Edozein motatako aldarrikapenak egiteko lekua eta denbora aproposa ematen dute (Martínez, 2007).

Dena den, lehengo jai herrikoien kultura ez da zeharo desagertu, globalizatzen diren leku tradizionaletan iraganeko ereduak moldatu eta forma berriak baino ez dira sortuko. Memoria kolektibotik sortutako forma berriak izango dira (Homobono, 1990).

Beraz, tradizioak iragana orainean txertatzeko zuen indarra galdu duen arren, zilegi egiten ditu gaur egungo hainbat kultur ondasun, jaien egutegia, esaterako. Urte batzuk atzera, uztak gizartean izan zezakeen eragina ikaragarria zen, uzta oparoa izan edo eskasa izan, dena erabat aldatzen zen. Horregatik zuen uztak halako garrantzia Eliza Kristauaren egutegian. Gaur egun, egutegia uztaren arabera egokitzeak ez luke zentzu handirik izango gu bizi garen Europa mendebaldeko lurretan, uzta "bermatua" baitago (Martínez, 2007).

Kontuak horrela, jaiak lehengo egutegian eta sinesmenetan oinarritu daitezkeen arren, oraingo jaiak ez dute zerikusirik garai batekoekin, egungo egoera soziokulturalak dakartzan berrikuntzen mendean baitaude. Gaur egun tradizio desberdineko pertsonen arteko talkagatik, zaila da herri-tradizioak bere horretan mantentzea; hain zuzen ere, integrazio prozesu orotan aldaketak suertatzen direlako. Talka hauek arrazoi desberdinek sortu dituzte: alde batetik, gizarteak hiritartzeko izan duen joera nabarmena bereizi daiteke, hala baserritarrak eta hiritarrak elkartuz. Beste alde batetik, globalizazioak sortutako deserriratzeak ere kultura desberdinak nahastea ekarri du. Beraz, lehengo eta oraingo jaien arteko aldeak ikusgarriak dira, tradizio desberdinak nahasteaz gain, identitate desberdinak ere elkartu direlako. Prozesu hauek ematea ez da txarra baina globalizazioak pare bat arrisku ditu berekin: aspektu sozialaren desagertzea eta natura albora lagatzea. Horretaz gain, jaiak beste hainbat aldaketa ere pairatu dituzte, lan egunak ez oztopatzeagatik



asteburuetara egokitu izan dira jai dezente, adibidez, Santa Ageda bezperako eskea otsaileko lehen larunbatera pasa da herri askotan eta komunikabideen eraginez nagusitzen den musika estiloa aldatu egin da eta lehen gailentzen ziren instrumentuak –trikitixa, adibidez- bateriak irentsi du (Aguirre, 1989... Datu gehigarri gisa, lehenago, trikitixak berak lekua kendu zien alboka eta txistuari, Santa Eskean.

Horrelako aldaketek, aurrez aipatu dudan oinarrizko nukleotik, egungo jai ereduetan gozamen soziala nagusitzea dakarte. Protagonismo gehiago hartzen dute aspektu profanoek, ludikoek, sozialek eta laikoek (Homobono, 2018). Ezagutzen ditugun jai gehienetan, jai denbora lan ez egiteko denbora da, errutinatik ateratzeko denbora, alaitasun kolektiboa bilatzeko denbora eta botereek ezarritako mugetatik aterata bizi berriak irudikatzen denbora.

Laburbilduz, garai bateko eta gaur egungo jai eredu berrien trantsizio honetan, identitate berrien bila gabiltzala esan daiteke. Lehengo jaiak bizitza ospatzea baldin bazuten xedetzat, garaiotako jaiak identitatearen aurkikuntza dute helburu, galdutako tradizioaren bilaketa moduko bat da (Martínez, 2007). Hori lortzeko, errituak funtsezko ezaugarriak dira. Burutzen diren errituek norbanakoen arteko loturak sendotzen edo berreraikitzen dituztelako eta, barne definizioa eraikitzeaz gain, egoera sozialaren kanpo irudi bat ere sortzen dutelako. Baina garrantzitsuena da elkarrekin izateko sentimendua sortzea eta mundu soziala ulertzeko laguntza ematea (Brisset, 2009).

### 2.1.3 Jaiak Euskal Herrian

Jaiak zer diren ulertuta, Euskal Herrian nola ospatzen ditugun eta zerk egiten dituen berezi azalduko dugu datozen lerroetan. Jaiak eta kulturak elkarreragina dutela esan daiteke, jaien nolakotasuna tokian tokiko kulturaren arabera izaten delako eta jaiak, beraiek ere, kulturaren parte direlako. Geertzen (1966) esanez, kultura historian zehar transmititu izan den patroia bat da, forma sinbolikoen bitartez komunikatzeaz gain, ezagutzak eta biziaren aurrean izateko erak garatu eta betikotzen dituenak. Aurrez aipatu bezala, kultura bakoitzak ahozko transmisioaren bitartez bere tradizioa mantendu izan du eta folklorea ez galtzeko ahalegin ikusgarria egin izan du. Giza ohiturek eta bizitzan oinarritzen diren ezagutza eta lanek osatzen dute lurralde jakin bateko folklorea: kantuak, dantzak, musika instrumentu tradizionalak...

Euskal Herriko folkloreak ezaugarri bereizgarri andana du: jai egunetako kantak, bertakoak soilik diren dantzak, jai egun batzuetako ohiko ez diren janzkerak eta garai bateko

bizitza gogoraraziz lurraldeko identitatea berreskuratzen diguten beste hainbeste elementu (Epelde, 2012). Ezaugarri hauek guztiak aztertzea ez da ahuntzaren gau-erdiko eztula. Kantak ikertzea errazagoa da dantzak ikertzea baino. Ahozko transmisioari esker, kantuak oroimen kolektiboan izatea errazagoa izateaz gain, idatziz jasotzea ere errazagoa da dantzak jasotzea baino. Hori horrela delako, ezagutza gehiago dugu euskal kantuen eta ahozko jardunaren inguruan dantzen ibileraren inguruan baino. Gainera, hauek dira euskal folkloreakaren oinarri sendoenak, kantuak eta dantzak.

Euskal dantza guztiek dute iraganeko bizitzan esanahiren bat, orain gutxira arte gizarte honetako herritar askoren motibazioa eta ilusioa baitzen. Zoritxarrez, gizarte aldaketek dantza asko iraganaren zati bihurtu dituzte, ahaztuak izan dira. Zorionez, dantza talde askori esker oraindik badira mantentzen eta gozatzen ditugun dantza asko eta asko eta dantzen ikerketan Iztueta (1767 - 1845) eta Beltranen (1947) lanak eskertu behar genituzke.

Euskaldunak umetatik izan du katurako joera; bazkarietan, jai herrikoietan, lagun artean eta beste hainbat esparrutan erakusten du. Kantuen ezaugarri nagusia soiltasuna da, melodiaren formak hitzen ia nolana hiko erabilera eskaintzen digula. Hala ere, euskal kantuak oparoak eta anitzak izanagatik, bertsoak dira euskal kantugintzaren ondasun baliotsuenetarikoak. Bertsogintza arte berria sortzen duen kultur espresioa da. Bertsolariak beti zerbait berria sortzen du, ez du aurrez eginik errepikatzen eta bat-batean jarduten du gehienetan. Bertsolariek gai bati edo egoera bati erantzuten diote metrika jakin baten baitan errimak behar diren bezala egokituz. Bertsolariek doinuak ondo ezagutzen dituzte eta silaba bakoitza zuzen txertatzen dute behar den tokian. Gehienetan, "a capella" aritu ohi dira eta gaiari heltzeko modua, erantzunen bizkortasuna, umorea eta bertso bakoitzaren baitan dagoen informazio guztiaren egokitasuna dira bertso bakoitzean aintzat hartzen direnak, horiei ematen zaie balioa. Hala ere, teknika albo batera lagata, balio dialektikoan eta poetikoan oinarritutako artea da (Epelde, 2012).

## 2.2 Eskea

Euskaldunok katurako eta bertsotarako dugun joera hori, ez da jai giroetara mugatzen. Ohitura zaharrei erreparatzen badiegu, bertsoa eta kantua jai girotik aldentzen diren hainbat esparrutan topa ditzakegu. Hileta elizkizunetan edo mendietan izaten diren oroigarrietan bertsoak atzeman daitezkeen gisa, euskaldun zenbait lagun talde kantu bidez aritzen ziren eskean eta, oraindik ere, aritzen dira. Egia da eskeko jardun hori jai giroaren edo ospakizun jakinen inguruan uler daitekeela.

Bere garaian eskean irteteko joera neguaren etorrerarekin bat izaten zen, gazte taldeek sortutako ohitura omen da negurako beharrezko ziren alimentuen eskean etxerik etxe edo baserri baserri jardutea (Larrinaga, 2018). Atarietan kantu bidez etxekoei opatutako osasuna eta bizi oparoaren truke, arrautzak, txorizoak, odolkiak, intxaurrak, sagarrak eta beste hainbeste elikagai ematen zitzaizkien errondan aritzen zirenei. Gizarte tradizionalaren ohitura horretan omen dago gaur egun jai egun edo bezperetan urritzen doan erronda bertsoak kantatzearen sorrera.

Hala ere, neguan zein udan, jai askotako osagaia da eskea (Arana, 2004). Beraz, lehen negurako elikagaiak lortzeko helburuaz sortu zela esan badugu ere, horrek ez du azaltzen zergatik edo zer dela eta sentitzen zuten errondan jarduten zirenek horretarako zilegitasuna. Aranak (2004) aipatzen duenez, beste mundukoen ordezkari dira eskatzen dutenak, bizi ezin baitituzte hildakoak ahantzi, eta hala, bizidunek lortutako emaitzak eurentzat jasotzeaz gain, ematen dutenei etorkizun oparoa ekartzen omen die.

Eskean ateratzea Euskal Herrian oraindik hainbat egun eta herritan mantentzen den ohitura da. Jatorrian, naturak markatu zuen Eskeen egutegia. Gerora Elizak asmatu du bere egutegi kristaua aurrekoari egokitzen: Domu Santu eguna, San Nikolas, Gabon eskea, Santa Ageda, San Juan,...

Eskeen sasoia Domu Santu egunean hasten da, hilak etortzeko unea den egunean bertan, hau da, azaroaren 1ean. Garai horretan, mundura zabaldu zen "Halloween" ospatzen dute erresuma anglosaxoietan, eta bertan ere eskean irteten dira. Ohitura hori askok arrotza dela esango duten arren, Euskal Herrian ere bada ospatzeko ohitura, Mutrikun Gaba Beltza izenez berriro duten jaia, adibidez, ez da atzeritik ekarritako jaia, Europa osoan bezala Euskal lurretan ere erro zaharrak ditu jai horrek.

Negua gerturatu heinean, Bariko San Nikolas egunez (abendua 6an), gazteak kantura ateratzeko ohitura dute Segura, Zegama, Arrasate edo Legazpi inguruan. Gabon egunean bertan, are ezagunagoa den ohiturari jarraituz, Jesus Haurraren omenezko eske kantuak entzun ditzakegu Euskal Herriko kale eta baserri inguruetan, baita Olentzerori eskainitako kantuak ere (Larrinaga, 2018). Azken bi hauek, San Nikolas eta Olentzero, gaur egun opari emaleak diren arren, bere garaian etxez etxe ibiltzen omen ziren kantuak eskainiz jateko zerbait lortu nahian (Arana, 2004).

Egutegiarekin jarraituta, urteari agur esateko errituak ere mantendu ditu gure herriak, horrela, joango dena agurtzeaz gain, datorrenari ongi-etorria egiten zaiola. Egun honetan ere, kantuan atera ohi diren taldeek limosna eskatzen diete bizilagunei, kantuen eta euren presentziaren bidez bedeinkatuko dituztela sinetsaraziz. Egundak pasata, "Hiru errege magoen" egunez, zintzarria edo joarearekin alaitzen dira kantuak. Ondoren dator Euskal

Herriko eske ospetsuena, Santa Eskea bera. Euskal Herriko leku askotan, kandelarioak hartu eta baserriz baserri kopla zaharrak kantatuz egiten zuten eskea (Larrinaga, 2018).

## 2.3 Santa Ageda

Irakurri bezala, Euskal Herrian eskean jarduteko ohitura anitza eta zabala izateaz gain, oraindik zenbait egunetan mantentzen den usadioa ere bada. Eskean aritzeko ohitura guztiak aztertzen jarriz gero, guztietan aurki litezke gure folkloreak hain bereizgarri dituen kopla zaharrak, baina Santa Eskea aztertuta, kopla zahar ederrenez gain, bat-bateko koplak, dantza bat edo beste eta gizarteak iraganean nolakoa behar zuen identifikatzeko hainbat ezaugarri aurki litezke. Horiek denek egiten dute Santa Ageda egunaren bezperako Santa Eskea Euskal Herriko eskerik ospetsuena.

### 2.3.1 Santa Agedaren bizia

Santa Ageda emakumeek beren zaindaritzat hautatutako santua da. Espainiako leku askotan ospatzen den jai eguna da, eta horietako askotan emakumezkoen eguna da soilik, gizonezkoak emakumeen meneko bihurtzen diren eguna, Segoviako Zamarramala, kasu (Sancho, 1951). Eliza Katolikoak otsailaren 5ean ospatzen du egun handi hau. Santa Ageda K.o. III. mendean bizi izan zen Sizilian. Palermon jaiotako neska gazte eder, on eta aberatsa zen. Quincianok, Siziliako prokotsulak, Agedaren maitasuna nahi zuen baina, ordurako, neskak Jesukristori agindua omen zion bere birjinitatea eta uko egin zion Quincianori. Prokotsula, haserre, aurpegia desitxuratu eta titiak moztu zizkion goitik behera espetxean sartu baino lehen. Santa Ageda espetxean zela, San Pedro agertu eta zauriak sendatu omen zizkion. Hala ere, torturak jarraitu zuen ikatz gorietan eta lurrean arrastaka eraman eta gero, 252. urteko otsailaren 5ean hil zen. Diotenez, hil eta urte betera, Etna sumendiak eztanda egin eta laba gorria mendian behera zetorrela biztanleek Agedari laguntza eskatu zioten eta hark hondamendia ekidin omen zuen, mirari horren ondoren, bera da Kataniako eta Siziliako zaindaria (Gil, 1986).

Agedaren bizitzako gertakari guztietatik titia moztu izana da gizartean eragin handiena izan duena. Santa Ageda irudikatzen denetan, ezker eskuan daraman bandeja batean moztutako titiekin eta eskuin eskuan erramuarekin ageri da, garbitasun eta martirioaren berezitasun eta sinbolo gisa.

Agedari gertaturikoa kopla ezagun askotan islatu zuten, hona hemen, adibide gisa, Zeberion kantatzen diren kopla batzuk (Etxebarria, 1999: 118-120)

“Gobernadore Palermokoak

aginpidea bazuan,

Santa Ageda hain zan ederra

bere andratzat nahi zuan.

(...)

Soldaduari agindu eutsan

plazan azotatutzeko,

eta mudatu nahi ezpazuan

bularrak ebagiteko.

(...)

Hori entzun da jentil gaiztoak

helduten dira bertatik,

kutxilloakaz ebagiteko

bere bularrak ondotik”.

### 2.3.2 Santa Agedaren presentzia

Orain artekoa azalduta, Santa Ageda ez da gehiegi desberdintzen aski ezagunak diren beste santu batzuetatik, izan San Blas edo Santa Luzia, adibidez. Baina orduan, zergatik du Santa Agedak halako presentzia eta indarra Espainiako hainbeste lurraldetan? Santa Ageda, gehienbat, non ospatzen den aztertzen bada, penintsulako ipar erdialdean ospatzen dela ikus daiteke. Penintsulako eremu horretan, emakumeen boterea beste eremuetan baino handiagoa delako dela uste da (Gil, 1986). Eremu horietan, adibidez, abeltzaintzan eta nekazaritzan oinarritzen zen ekonomia txikian, emakumeek laia eta aitzurra gizonetakoek baino gehiago erabiltzen omen zuten. Gorago idatzia den gisa, Santa Ageda emakumezkoen zaindari den aldetik, logikoa da emakumeek presentzia gehiago duten lurretan santuak garrantzia handiagoa izatea. Dirudienez, Euskal Herrian Santa Agedaren

egunez emakumeek debekatua zuten garbiketa edo sukaldean aritzea bezalako etxeke lanak egitea. Azkueren esanetan, Santa Ageda egunez pujeta egitera ausartu zen emakumearen etxea erre zuen Santa Agedak ...

## 2.4 Santa Eskea

Sineskeriak sineskeria, sinesmenak sinesmen eta usteak uste, Santa Ageda bezperan eskean ateratzeko ohitura zabaldu zen Euskal Herrian. Ohitura horrek bereizgarri andana garatu ditu urteen poderioz. Santa Eskean edo errondan ateratzen direnek baserriak tokatu edo hasieran erabakitako hurrenkeran pasatzen dituzte. Baserri bakoitzean geratu eta bertakoei koplak abesteari koplaztea esaten zaio hainbat lekutan. Baserrietan koplak zaharrak kantatzeaz gain, eskuetan eramaten dituzten makilekin kolpeak eta bikote batek eramandako trikitixa eta panderoa ere jotzen dituzte. Koplak burua denak esku-txilin handiena darama bere makilaren puntan erritmoa markatzeko. Nahiz eta koplazteko ohitura herrietara eta hirietara jaitsi, baserri bakoitzeko jarduna aberasgarriagoa eta ederragoa delakoan nago. Hala aritzen diren taldeetan egiteko desberdinak banatzen dira. Alde batetik, koplak kantatzen dituzten bertsolari bat edo bi izaten dira, beste alde batetik, trikitixa eta panderoarekin Santa Eskeko doinuak jotzen dituztenak doaz, eta bestetik, koplak errepikapenak kantatzen dituzten gainontzeko guztiak.

### 2.4.1 Santa Eskeko jarduna

Errondan dabilen taldea baserri edo etxe batera iristean, segi beharreko jarraibideak izaten dituzte. Koplek ordena jakin eta finko bat daukate, lehen koplak sailari "nota" deitzen zaio, eta bigarrenari, "eskabidea". "Notak" eta "eskabideak" oso desberdinak dira elkarrengandik, "notak" etxekearen inguruan abesten diren koplak dira, hau da, etxekeak "notatzen" dira lehendabizi. Behin etxekeak "notatu" direla, "eskabiderako" unea hasten da, eta, noski, koplak hauetan jana, edana edota dirua eskatzeko ausardia izaten dute kantariak. Bi hauek izan arren koplak saioko sail nagusiak, beste sail batzuk ere badira beti edo talde guztiek egiten ez dituztenak. Koplak sail horietako bat, Santa Agedaren bizitzaren inguruko koplak dira. Hauek Santa Ageda bezperan ateratzen ziren taldeek kantatzen zituzten, gaur egun, ohitura hau ia galduta dagoela esan daiteke, ia talde guztiek "notak" eta "eskabideak" baino ez dituztelako kantatzen. Hori hala bada ere, talde batzuek baimen koplak batzuk kantatzen dituzte aurretik, baserrian hilberriren bat izanez gero, ez delako baserri horretan

kantatzen, dolua errespetatuz (Arana, 2004). Baimena eskatzen ez duten taldeek, abiatu aurretik, paper batean idazten dituzte pasa beharreko baserrien izenak eta bertan bizi direnen ohar batzuk, horrela, hilberrien baserrietatik geratu gabe pasatzen dira. Zenbait tokitan, Mutrikun adibidez, baserri horietan “Kyrie Eleison” edo “Aita gurea” errezatu eta bideari jarraitu izan diote orain gutxi arte behintzat.

#### 2.4.1.1 Notak

Behin baimena eskatuta edo “notekin” hasita, etxeoak laudatu ohi dira, etxekoei loreak botatzen zaizkie. “Nota” bakoitza laudorio bat izaten da eta hauetan ere ordena bat mantentzen da teorian. Teorian diogu, talde berriek ordena hau ez dutelako beti errespetatzen, eta jarraitzen badute, ez da iraganeko arrazoi berengatik izaten behintzat. Iraganeko orden hierarkikoaren eta protokoloaren arabera, lehenengo “notatu” behar dena “etxeke jauna” da. “Etxeko jaunarekin” amaitzean, “etxeke andrea”, gero “maiorazkoa”, eta berarekin jardun ostean, etxeke alaba zaharrarekin aritzen dira. Horiek guztiekin amaitutakoan, etxeke beste mutil gazteak eta, bukatzeko, etxeke neska gazteak aipatzen dira. Baserrian bertan morroi edo neskamerik bada, hauek izango dira azkenak kopletan aipatzeko hurrenkeran.

Ohitura zaharraren arabera ordena hau inola hautsi ezin badaiteke ere, gaur egun jarduten diren talde askok beste ordena bat jarraitzen dute. Ezagutzen ditugun taldeetan lehenengo baserriko aitona-amonekin hasten dira, askotan amona aipatzen lehena dela. Jaio berririk baldin bada, beraren inguruan galdetzen da ondoren, eta amaitzeko, etxeke beste guztiei eskaintzen zaizkie koplak etxe horretako bakoitzarekin den konfiantzaren arabera edo atarira ateratzen diren ordenaren arabera. Hala egiten dute, behintzat, azken urteetan Itziarreko auzoetan zehar kantura ateratzen diren taldeek. Egia da ez dela gauza bera koplak zaharrak kantatzera ateratzea ala bertsoara animatzea. Koplak zaharrak, errenkadan eginak dauden aldetik, ordena aldatzeak ez luke zentzurik izango, bertso asko ez bailirateke ulertuko hurrenkera aldatuz gero.

Bat-batean koplak denean, aldiz, kontua bestelakoa da. Inprobisazioak bertsolariak nahi duen ordena jarraitzea ahalbidetzen dio bertsolariari berari. Garrantzitsua da berriro ere azpimarratzea, etxe atari guztietan kantatzen dela bertakoak ohoratzeko eta duten ontasuna agerian uzteko, hau da, koplariaren hitzetan etxeoak apainak, langileak, eskuzabalak... izango dira, eskean dabilenak emalea limurtu behar du. Bertsoan egiten bada, bakoitzari bere ezaugarriekin jositako bertsoak egiten zaizkion arren, koplak zaharrak abesterakoan kontua izaten zen baserri batean eta bestean zer esan, baserri bateko

nagusiari eta alboko baserriko nagusiari gauza antzerakoak esaten zitzaizkien, beraz, errepertorioa nahiko itxia eta berdintsua zen. Ataunen, esaterako, Santa Eskeko usadioan lau arau nagusi bildu zituzten, beti errespetatu behar zirenak (Baztarrika, 1982):

- 1- Koplatzen den etxean ezin liteke aipatu gabeko inor utzi.
- 2- Etxekoak aurretik aipatutako hurrenkeran “koplatuko” dira.
- 3- Pertsona batekin amaitzean, bestearekin hasi aurretik: “orain aurrera goazen! (izena) hori koplatzen”. Beste modu bat sarrera koplak bat abestea da, hau da, kortesiak eskatzen duen aurkezpen koplak bat. Koplak honetan, etxe baten alabantzaz gainera, beste norbait aipatzen hasiko dela azaltzen da baita ere.
- 4- Pertsona bakoitzari kantatuko zaizkion koplak kopurua zentzuduna izan dadila eta abildadea duenak koplak asmatu ditzala, inor minduko ez duela.

Arau hauek, Ataunen ez ezik, beste leku askotan ere jarraitzen ziren. Halako arauak ahalbidetu dute “notak” izatea euskaraz ezagutzen ditugun kanturik finkoenak, Euskal Herriko ia lurralde guztietan antzera kantatzen dira, aldaera gutxi jasan dituzte. Aldaera esanguratsuenak edo antzemateko agerikoenak, euskalkien aldaerak dira.

#### 2.4.1.2 Eskabidea

“Notekin” amaituta, “eskabideko” koplekin hasteko ordua da, laudorioak edo losintxak eskaini ostean, jatekoa, edatekoa eta dirua eskatzen da gizalegez. Garai batean etxeoandreak eskaintzen zitzaizkion eske koplak gehienak, izan ere, bere ardura izaten zen etxe baten dirua gobernatzea. Gaur egun, ordea, eske koplak ez zaizkio zuzenean inori kantatzen, atarira atera diren guztiei kantatzen zaizkie. Batzuetan, sukaldeko amantala jantzita duenari eskatzen zaio gehiago, hark jana eskuragarriago izango duen ustean.

Eskatzeko koplak hauek bi motakoak izan daitezke. Batetik, jana eta edana eskatzeko koplak daude, eta bestetik, dirua eskatzeko koplak. Jatekoa eskatzeko kopletan neguari eusteko jatekoa eskatzen zen. Nola iragana eta oraina desberdinak diren oso, orain jana eskatzen denean, momentuan etxeoekin jateko eskatzen da, egun osoan etxe guztietan mokadu bat hartzeko helburuarekin. Horregatik eskatzen da edana ere, egun guztia baserri baserri kantuan pasa behar duten taldeek behar izaten dute mokadua eta hura hobeto sartu dadin edateko pixka bat ere.

Dirua eskatzeko koplak bestelakoak dira. Jana eta edana bezala, inolako errukirik gabe eskatzen da, eskatzea libre omen da eta dirua dagoen etxean, gehiago eskatzen da



edo erruki gutxiagoz. Kopla zaharretan urre gorria eskatzen zen, zenbat eta zaharragoak izan koplak, orduan eta urre-zilar gehiago eskatzen zuten (Kaltzakorta, 2003).

Gaur egun urre-zilarrak ez da eskatzen eta dirua beste helburu batzuetarako eskatzen da. Lehen dirua familien beharretarako eskatzen bazen, orain behar sozialei aurre egiteko eskatzen da. Adibidez, Itziarren ateratzen diren Santa Eske taldeak lau izaten dira. Lau talde horietatik hiru larunbatez ateratzen dira eskean eta lortutako diru guztia Itziarreko bertso eskola finantzatzeko baliatzen da. Laugarren taldea, berriz, Santa Ageda bezpera egunean ateratzen da, eguna edozein dela ere. Hauek lortutako dirua euskal presoentzako eta euren familientzako izaten da. Hori horrela izanik, Santa Eskean urtero ateratzeko arrazoiak urtero aldatu daitezke Itziarren, azken urteotan bertso eskolarako eta presoentzako dirua lortu izan bada ere, orain urte batzuk “Herria Sortzen” proiekturako izaten baitzen.

Gaur egun, lasturtarrak itziartarrekin ateratzen dira Santa Eskean, baina ez da beti horrela izan. Orain urte batzuk, lasturtarrak euren kasara aritzen ziren baserriz baserri hauek “notatzen” eta opil eske Tolentinoko San Nikolas egunean (irailaren hamarra). Opilek, sabela berdintzeaz gain, bazuten beste gaitasun bat ere: ura mendian behera handituta bazetorren, koplariak opilak errekarra botatzen zituzten, eta hala, urak ez zuen gainezka egingo.

### 3 Proposamen didaktikoa

Orain artean idatzitako oinarri teorikoan aipatu dugun bezala, gizarte likidoak tradizioaren eta orainaren arteko gatazka moduko bat sortu du. Inguratzen gaituzten komunikabideen, sare-sozialen eta publizitate kanpainen eraginez, atzerrikoari buruz gehiago dakigu gure gertukoari buruz baino. Transmisio moduak aldatzearekin batera aldatu dira gizartearen interesak eta ezagutzak.

Garai batean ezagutza askoren transmisioen ardura familiarena zen, hark eskaintzen zien ondorengoei jakin edo ezagutu behar zutena. Gaur egun, neurri batean hala izaten bada ere, belaunaldiz belaunaldiko transmisioa eten egin dela esan daiteke, globalizazioaren abiadura bizkorrak eta herritarren mugikortasunak norberak bere herria garai batean baino gutxiago ezagutzea ekarri duenez (Ramirez de Okariz, 2013).

Arazo honen aurrean, hezkuntza formalak erantzun bat eskaini beharra sentitu du eta tokian tokiko kultur ondarea ezagutu eta transmititzeko material didaktikoak sortzen dabilta hainbat herritan, Azpeitian, Arrasaten eta Ordizian kasu. Gizarte Zientzietarako erraminta baliagarria da kultura-ondarea, eta honen inguruko galdera zuzenen erantzunek, hausnarketek eta ondorioek ahalbidetuko dute inguru sozialaren eraikuntza ulertzea. Izan ere, gizarte bakoitzak osatzen duen kolektibo edo komunitate kultural bateko identitate propioa ezagutzea beharrezkoa da, hau da, kultura ondasuna ezagutzea. Egitasmo honen xede nagusienetako bat ikasleak inguruarekin lotzea da, izan ere, ezagutzen ez dena ezin liteke maite. Horretarako, erreferente eta estrategia berriak bilatu eta sortzea dagokigu (Ramirez de Okariz, 2013).

Curriculumari erreparatzen badiogu, kultura ondarea erraminta aproposa, eraginkorra eta indartsua izan daiteke Gizarte Zientzien irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan. Are gehiago, kultur ondasunak Gizarte Zientzietatik haratago, bide eman dezake beste hainbat eta hainbat ikasgaitako edukiak eta gaitasunak lantzeko.

Jorratzen ari garen gaia, Santa Eskea, oinarri modura hartzen badugu, Hizkuntza eta literatura komunikaziorako kompetentzia landu daiteke, euskararen eta bertsoaren presentzia nabarmenagatik. Baita kompetentzia sozial eta zibikoa, izan ere, balio zibikoak eta sozialak jorratzeko aukera asko eskaintzen ditu Santa Eskeak, erlijioa lantzeko ematen dituen era berean.

Ondoren eskainiko ditudan arazo egoeretan kompetentzia guztiak bilduko ez diren arren, badira Santa Eskearekin landu daitezkeen kompetentzia gehiago. Matematikarako

konpetentzia landu ahalko litzateke garai bateko eta gaur egungo ekonomia alderatuz, lehengo eta gaur egungo txanponak konparatuz... Zientziarako konpetentzia edo teknologiarako konpetentzia garai bateko baserriko lanabesak gaur egungo lanabesekin konparatuta edo gaur egungo herrietako bizimodua garai batekoarekin alderatuta landu genitzake. Edo arterako konpetentziak bertsogintzarekin landu genezake, adibidez (Eusko Jaurlaritzak, 2015). Hortaz, agerian geratzen da gai batek konpetentzia desberdinak jorratzeko aukerak ematen dituela. Hezitzaileon ardura da landu nahi ditugunak hautatu eta proposamen pedagogiko txukunak egitea.

Hau dena horrela izanda, eskolak eta herrietako subjektu desberdinek batera lan egitea da aberasgarriena. Herrietako hainbat eta hainbat talde kultura ondarearen transmisiorako erabat lagungarri izan daitezkeelako, hala nola: bertso-eskolak, musika taldeak, dantza taldeak, okinak... Eremu formalaren eta ez-formalaren arteko harremana zenbat eta estuagoa hobe. Gainera, lan taldetan lan egiten bada, bakoitzak proiektua bere sentituko du eta herriko eragile batzuk parte hartzen badute, proiektua bera indar handiagoz aterako da aurrera.

Euskal Herrian kultura ondare handia dugun arren, bertsolaritza da esanguratsuenetako bat. Beste inon egiten ez den kantu inprobisatuak dituen berezko ezaugarriengatik edo. Gainera, ekainaren 6 honetan onartu zuten ondare ez materialik gabeko kultur ondareko sailean sartuko zutela bertsolaritza Nafarroan (Berria, 2018).

Deba Barrenako inguruetan Santa Eskean ateratzeko ohitura herri eta auzo dezentetan mantendu da. Ezagunena edo entzutetsuena Mutrikuko taldea izango da ziurrenik, izan ere, hainbat urtetan jardun ziren Okelar anaiak eta Azpillaga bera ere, Santa Eskean fin bezain liluragarri aritzeagatik famatutako bertsolariak. Okelartarrak (Modesto eta Roman) bi anaia bertsolari izan ziren. "Herri-bertsolari" esaten zaien horietakoak, hau da, Mutriku inguruko bertso beharrak asetzen zituzten (inoiz kanpokoak ere bai) baina ez ziren ez txapelketetako ez jaialdi handietako bertsolariak. Etxe berean hazi eta iturri beretik edan bazuten ere, esku bereko ahurra eta ganbila izan zitezkeen. Modesto, zaharrena, gizonkotea, umore gordinera jotzen zuen; bertso-lagunari erantzun azkarra eman eta jendea barrez jartzen zuen. Roman, argala, lotsatiagoa, bertso sakon eder askoak sortzeaz gain, oso umore gozoko bertsolaria zen, ironia finez, ziri ederrak sartzen zituen; barre algarak baino, irribarreak sortzen zituen.

Hala ere, bertsolari baino koplariak izan ziren. Olatzeko auzoan, Santa Ageda bezperan, goitik behera baserri baserri ibili ohi ziren. Ate aurreko saio luzeetan ohituta ziren biak, kopla beti ezpainetan, ez ziren erraz isiltzekoak.

Modesto, bat-batekosunaren ur jausia zena, entzule izan zen Mutriku-Berriatua herrien arteko bertso desafio batean. Bertsolari gazte batek denbora luzea hartzen ari zela eta ingurukoei esan zien: “Nik honezkeo periodikua idatzi nin”.

Roman, berriz, bertso-tara inora joateko ordua ipintzen zuen: Ilunabarra. Ganadua gobernatu eta gero aterako zen baserrietik. Alabaina, bertso-tan hasi eta gero ez zuen, inoiz, etxera bueltatzeko ordurik izaten. Bertso-tan edo kople-tan hasita, berriz, beti izaten zuen zeresana eta erantzuna. Bertsolari laguna isiltzean isilduko zen bera; azkeneko bertsoa berea izan ohi zen.

Azpillagak, berriz, parean topatutako bertso paper guztiak ikasten zituen, irakurri eta gero. Bere garaian bertso-eskolak existitzen ez baziren ere, hura zen Azpilagaren bertso-eskola. Bertso mordo-a sartu zituen gogora, tartean Santa Eskeko koplak ere. Hamar urterekin ikasitako koplak kantatzen hasi zen Berriatuako Santa Eskean eta hamalau urterekin ausartu zen lehen aldiz bat-batean jardutera. Santa Eskeko garai haietan hasi zen beranduago bertso-tan garatuko zituen ondorengo ezaugarriak lantzen: Mikrofonorik ez zegoen garaietarako ahots ederra zuen, tenorra; deskribapenak egiterako orduan zehaztasun handia zuen, baserria eta inguruak begiak itxita zituen entzuleak ere erraz irudikatze-ko moduan azaltzen zituen; narrazio-arako ere gaitasun berezia zuen, haria etengabe koherentzia osoz esaten zuen esan behar zuena hasieratik bukaeraraino; bidea irekitze-ko zuen gaitasuna zen bere ezaugarri-rik ezagunena, “Hasi, Azpillaga” esaten zioten gai-jartzaileek eta bertso-lagunek, librean utzita, bere arrastoari baino ez zioten jarraitu behar izaten gainontze-koek; hitza betetzen zuen gizona zen, hamar urte zituenetik behin bakarrik utzi zion Santa Eskean koplari aritze-ari, amona hil zitzaion urtean izan zen, eta ohitura da dolua gordetzea etxekoa hiltzen zaizun urtean; jendarte-an aritzeko gaitasuna ere bazuen, auskalo zenbat pertsona ezagutu-ko zituen, uneoro jakiten zuen zer esan, kople-tan bezala, hizketan zebilenean ere bazekien elkarrizketa norantza bideratu eta isiltasunak nola hautsi; eta amaitze-ko, oso gizon indartsua zen Jon Azpillaga. Egun elurtsuenetan ere abarketak jantzi eta baserri bateko ate aurrean ordubete-ko kopl-a saioa egin eta hurrengora joateko kemena eta sasioa zuen (Aizpurua, 2017).

Hala ere, Mutrikuko-en jarduna bestekoa da Itziarre-ko taldeek inguruko auzoetan egiten dutena. Urtero-urtero hiru edo lau talde-tan banatu eta Lastur Goia, Lastur Behea, Elorrixa, Egia, Endoia, Mardari eta Itxaspe auzoak kopl-atzen dituzte. Debako ohitura bestelakoa da, ikastetxe-ko haurrak herri-ko kaleetan zehar aritzen dira izara bat leihoe-tatik botatzen dituzten txanponak jasotze-ko izaten dutela. Kopl-a zaharrak kantatzen dituzte, baina ez dira ez “nota” ez “eskabide” koplak izaten, Santa Ageda bezpera egunari eginiko kopl-a zaharrak izaten dira. Hori hala izanik, ikasleek Santa Eskea zer zen ondo ulertu dezaten,

kopla zaharrak ezagutu ditzaten edo bizimodu tradizionala nolakoa zen ikasi dezaten, Itziarreko koplariekin batera ateratzeko aukera eman lekieken proposamena da ondorengoa.

Debako ikastetxean proposatzeko proiektu bat izango da. Seigarren mailako ikasleekin hasi baina maila guztietako ikasleek parte hartzeko proiektua izango litzatekeena. Bertan Santa Agedaren eta Santa Eskearen inguruko informazioaren jabe egin, Santa Eskeko jarduna ezagutu eta kopla zaharren berri izan ahalko dute besteak beste. Hori guztia Itziarreko kantuan ateratzen diren taldeekin koordinatuko direla.

Proiektu hau arazo egoeren bitartez bideratuko da. Curriculumaren helburua arazo egoerei erantzun egokiak emango dizkieten ikasleak prestatzea da. Horretarako, ikasleak egoera konplexuen aurrean ipintzen dira eta egoeretatik ateratzeko behar dituzten kompetentziei erreparatzen zaie. Gainera, arazo egoeretan izandako erantzunak edo hauen bidez ikasitakoa beste egoera batzuetan erabiltzeko gaitasuna lortuko lukete ikasleak (Eusko Jaurlaritza, 2018).

<b>ARAZO EGOERA</b>	
<b>Izenburua:</b>	Santa Ageda
<b>Ikasgaia:</b>	Gizarte Zientziak
<b>Maila:</b>	Seigarren maila
<b>Testuingurua:</b>	
<p>Santa Ageda bezperan, Euskal Herriko herri eta auzo askotan koplari taldeak baserriz baserri eta etxez etxe aritzen dira koplak zaharrak abestuz edo etxe atariko bertso berriak jarriz. Ikastetxe askok ere izaten dute euren ikasleekin herriko kaleetara atera eta aurrez prestatutako esku-orrietan dituzten koplak abesteko ohitura.</p> <p>Kasu honetan, seigarren mailako ikasleek hasiera emango diote ikastetxe guztiak parte hartuko duen proiektuari. Proiektu honek Santa Ageda eta Santa Eskea gaiak sakonago lantzeko balioko du, tradizioa orainean uztartzeko eta etorkizuna eraikitzeko behar den ikuspegi globala lantzeko.</p>	
<b>Arazoa:</b>	
<p>Euskal Herrian Santa Ageda bezperan koplari ateratzea ohitura errotua den arren, gaur egungo ikasle gehienek arrastorik ere ez dute zein garaitako usadioa den edo zergatik egiten zen bere garaian. Sarri tradizioa mantendu arren, errituak jarraitu baino ez dira egiten, tradizioaren xehetasunak zeintzuk diren jakin gabe. Ikasleekin, hau da, oraina eta etorkizuna eraikiko dutenekin, iragana lantzea premiazkoa da, beraz, Santa Agedaren inguruko jakintza zabaltzeko ahalegina egingo da proiektu honetan.</p>	
<b>Xedea:</b>	
<p>Santa Ageda nor zen eta Santa Eskearen nondik norakoak ezagutzea lehendabizi, gero ikastetxeko beste ikasle guztiei azaltzeko.</p>	
<b>Helburuak:</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>-Santa Ageda nor zen jakitea.</li> <li>-Euskal Herrietan Santa Ageda zergatik den beste Santu batzuk baino ezagunagoa ulertzea.</li> <li>-Santa Eskeko jarduna nolatan sortu zen ezagutzea.</li> <li>-Irakasleak eskainitako iturriak baliatzen ikastea (testuak nola landu, Interneten zerekin fidatu eta zerekin ez fidatu...)</li> <li>-Laburpenak egiten ikastea.</li> <li>-Ahozko azalpenak ematen ikastea.</li> <li>-Ikastetxeko beste ikasleei azalpena emateko lagungarri bat prestatzea.</li> <li>-Talde lanean jardutea.</li> <li>-IKTetan trebatzea.</li> </ul>	

- Ikastetxeko gainontzeko ikasleei azalpena ematea mailaz maila.
- Proiektu baten lan egiten trebatzea.

#### **Ataza:**

Hasteko, irakasleak ikasleekin Santa Agedaren eta Santa Eskearen inguruan dituzten aurre ezagutzak zeintzuk diren aztertuko dituzte. Behin guztiongandik ateratako informazio hori dena arbelean izanik, irakasleak eskainiko dizkien iturrietan (testuak, testigantzak...) oinarrituta, aurre ezagutza horiek egia diren aztertu eta jakin nahiko luketen beste guztia topatuko dute lan talde desberdinetan. Horretan dabiltzala, laburpenak egin beharko dituzte datu garrantzitsuenak bakarrik biltzeko. Beharrezko informazio guztia bilduta dutenean, ahozko azalpena nola egin erabakiko dute eta horretarako baliatuko duten murala egiten hasiko dira. Bukatzeko, ikastetxeko beste ikasleei emango diete azalpena beraiek erabakitako moduan, izan daiteke ikasgelaz ikasgela joanda edo guztiei batera.

#### **Jarraibideak:**

- Aurre ezagutzak plazaratu.
- Falta den informazioa zein den aztertu: jakin nahi denaren inguruko galderak sortu.
- Irakasleak eskainitako iturrietan aurre ezagutzak ziurtatu eta erantzunik gabeko galderei erantzun.
- Lortutako informazio guztia laburtu.
- Aurkezpena nola egin erabaki.
- Murala prestatu.
- Aurkezpena praktikatu.
- Egindako lana gainerako ikasleei aurkeztu.

ARAZO EGOERA	
<b>Izenburua:</b>	Santa Ageda
<b>Ikasgaia:</b>	Gizarte Zientziak
<b>Maila:</b>	Bosgarren maila
<b>Testuingurua:</b>	
<p>Santa Eskea egun bat izanagatik, aurreko prestaketa behar beharrezkoa izaten da, egunean zehar inolako buruhausterik ez izateko eta dena nahi nola irteteko, beraz, ez da egun bakarrera mugatzen Santa Eskeko jarduna. Eskean aterako diren taldeak egin eta talde bakoitzak zein auzo koplaturiko duen erabakitzeaz gain, auzo horietako zein baserritara joan eta zein ordenatan pasa pentsatu behar da. Herrietan talde bakarra izaten da batzuetan, beste askotan talde bat baino gehiago izaten dira.</p> <p>Orain artean ikastetxeko seigarren mailako beste ikasleek egindako lana aintzat hartu eta gero, Santa Eskeko eguna prestatzen jarraituko dugu bosgarren mailakoekin.</p>	
<b>Arazoa:</b>	
<p>Santa Eskean ateratzea urtero egiten den zerbait izanagatik, urtero atera aurretik lan egin behar izatea dakar. Jakin egin behar da zein baserritatik pasa behar den eta zein baserritatik ez, baserri bakoitzean nor bizi den, zein den baserrian bizi direnen egoera, baserri batetik bestera nola lekualdatu, "poltseroa" nor izango den erabaki, pandero-jolea eta trikitilaria lotzea...</p>	
<b>Xedea:</b>	
<p>Xedea Itziazarreko Santa Eskeko taldeentzako datorren Santa Eskerako ibilbidea sortzea izango da. Ikastetxeko ikasleek parte hartuko dutenez, auzoak nola banatu, auzo bakoitzera zenbat pertsonako taldeak bidali, zein baserri pasa eta zein ez erabaki eta aurrez aipatutako beste lotu beharrekoak zehaztuko dira.</p>	
<b>Helburuak:</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Santa Eskeko ibilbidea sortzea.</li> <li>- Auzoen banaketa egitea.</li> <li>- Kanturako taldeak adostea.</li> <li>- Rolak banatzea: "poltseroa", pandero-jolea, trikitilaria, txoferrak... Rol hauek Itziazarreko taldeko kideekin adostuko dituzte.</li> <li>- Baserri bakoitzeko egoera zein den aztertzea: hildakorik izan den, nor bizi den...</li> <li>- Ibilbidean zehar erabiltzeko jarraibide gisako orria prestatzea: baserrien izena ordena jarraituz, bertan nor bizi den, berezitasunak...</li> <li>- Ikastetxeko beste ikasleei ibilbidea azaltzea.</li> <li>- Talde bakoitzak erabili ahal izango duen mapa sortzea.</li> </ul>	



- Kartografia lantzea (eskala zer den ulertzea, mapatan orientatzen ikastea...).

#### **Ataza:**

Ikasleek Itziarreko taldean zenbat pertsona arituko diren jakinda eta zenbat ikasle aterako diren ezagututa, Santa Eskeko taldeak sortu eta hauen ibilbidea prestatu beharko dute. Taldeak sortzeko, kontuan izan beharko dute musikari kopurua eta txoferren banaketa. Gainera, "poltseroak" izango direnak ere aurkitu beharko dituzte. Behin taldeak sortuta eta talde bakoitza zein auzotara joango den erabakita, talde bakoitzarentzako bi orri prestatu beharko dituzte: batetik, baserri bakar bat ez ahazteko eta bidean ez galtzeko mapa bat osatuko dute. Bestetik, baserri bakoitzaren izena, baserri horretan bizi direnen izenak eta Itziarreko koplarietako koplak berriak sortzeko lagungarri egingo zaizkien familiako berezitasunak jasoko dira. Bukatzeko, prestatu dutena ikastetxeko ikasleei eta Itziarreko taldeetako kideei azalduko diete.

#### **Jarraibideak:**

- Santa Eskeko egunerako taldeak sortu.
- Talde bakoitzeko rolak banatu Itziarreko taldekideekin adostuta.
- Talde bakoitzak jarraituko duen mapa prestatu.
- Baserri bakoitzeko datuak jasoko dituen taula egin.
- Ikastetxeko beste ikasle guztiei eta Itziarreko partaideei egin duten guztia azalduko diete.

<b>ARAZO EGOERA</b>	
<b>Izenburua:</b>	Santa Ageda
<b>Ikasgaia:</b>	Gizarte Zientziak eta Euskara
<b>Maila:</b>	Laugarren maila
<b>Testuingurua:</b>	
<p>Bertsolaritzan koplak dira ariketa errazenak jarduten ez direnen ustetan. Bi edo asko jota hiru errima “soilik” lotu behar direnez, beste ariketak baino sinpleagoak direla eman dezake. Usteak uste, koplek beren zailtasuna ere badute eta ondo egitea ez da batere erraza. Hitz gutxitan asko esateko gaitasuna izatea ez baita nahigabe egiten.</p> <p>Gainera, koplek beren baitako mundu ikaragarri zabala dute. Arte bat da koplak mundua eta merezi du mundu hori ezagutzeak. Euskal Herriko jaietan eske koplak dira ezagunenak eta bereizgarri gehien dituztenak ere.</p>	
<b>Arazoa:</b>	
<p>Kopla zaharren bilduma egina dagoen arren, kopla zaharrak ulertu egin behar dira. Kopla zaharrak egin ziren garaiko logika ulertu behar da horretarako, hau da, beste garai bateko zernahi aztertzen denean, garai hartako gizartea ulertzea beharrezkoa da, emakumeen garai hartako posizioa seguraski ez baitzen izango gaur egun dutena, adibidez. Garaiak aldatu direnez, gizarteko errolak aldatuz dabiltzanez, badaude gaur egun sortuko litzatekeen ohitura batean izango ez liratekeen ezaugarriak. Hauek guztiak identifikatu behar dira kopla guztiak ulertu daitezen.</p> <p>Koplak aldian fase desberdinak eta etxekoei kantatzeko ordena desberdinak daude, fase hauek ulertu eta ordena aztertu behar da kopla zaharrak behar bezala konprenitu daitezen.</p>	
<b>Xedea:</b>	
<p>Santa Eskeko kopla zaharren logika eta bildutako kopla zaharrak ulertzea da xedea. Kopla hauek ulertuz, baserriz baserri nola aritzen ziren ere ulertuko baita. Gainera, kopla batzuk sortzeko ahalegina ere egingo dugu.</p>	
<b>Helburuak:</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kopla zaharrak ulertzea.</li> <li>- Euskararen ulermena.</li> <li>- Koplak metrika aztertzea.</li> <li>- Nola kantatzen ziren jakitea (batek kantatu eta errepikapena denek).</li> <li>- Kopla zaharren barne logika ulertzea: sarrera koplak, notak eta eskabideak.</li> <li>- Sarrera koplak aztertu eta zertarako diren jakitea.</li> <li>- Notak zer diren ikusi eta bat ala beste sortzea.</li> </ul>	

- Eskabideko koplak bidez konplexu gabe nola eskatzen den jabetzea.
- Koplak kantatzeko ohiturak ezagutzea, hau da, zeini lehenengo, nori ondoren...
- Ohitura hori aldatuko genukeen edo ez eztabaidatzea.
- Kopla mota bakoitzetik bat sortzea.
- Ikastetxeko gainontzeko ikasleei ikasitakoa azaltzea eta kopla bat edo beste abestea.

#### **Ataza:**

Irakasleak kopla zaharren bilduma eskainiko die ikasleei hauek beren azterketak egin ditzaten. Lehenik eta behin, koplak irakurri eta zer dioten ulertzen saiatuko dira. Koplak ulertu dituztenean, kantatuz nolako metrika duten behatuko dute gerora eurenak sortu ahal izateko. Eskuartean dituzten kopla sailetatik, “notak”, “eskabideko koplak” eta “sarrera koplak” banandu eta bakoitza zer diren ikasiko dute. Ondoren, koplak kantatzeko ordena egokia zein zen eta ordena hori gaur egun errespetatuko luketen edo ez luketen errespetatuko eztabaidatuko dute. Bukatzeko, kopla mota bakoitzetik bat sortu eta besteei egindako lana eta ateratako ondorioak azalduko dizkiete kopla batzuek abestearekin batera.

#### **Jarraibideak:**

- Irakasleak emaniko koplak ulertzen saiatuko dira.
- Koplak metrika aztertuko dute.
- Taldeka banatuko dira, talde bakoitzak gai desberdin bat landu dezan: “notak”, “eskabideko koplak” eta “sarrera koplak”.
- Mota bakoitzeko kopla bat sortuko dute.
- Atarrietan etxekoei zein ordenatan kantatzen zitzaie aztertu eta ordena honen inguruan eztabaidatuko dute.
- Ikastetxeko beste ikasleei egindako lana azalduko diete eta kopla bat edo beste abestu.

<b>ARAZO EGOERA</b>	
<b>Izenburua:</b>	Santa Ageda
<b>Ikasgaia:</b>	Euskara
<b>Maila:</b>	Hirugarren maila
<b>Testuingurua:</b>	
<p>Ikasle zaharragoek egindako lanari esker, Santa Eskea zer den badakite, baita koplak zaharrak nolakoak diren ere. Gainera, koplak mota desberdinak daudela jakinda, “notak” aprobetxatzea gauza ederra litzateke, adibidez, laudorioak lantzeko eta “eskabideko” koplekin nola eskatzen den ere ikasi dezakete. Santa Eskeko jardunarekin, euskararen eremu asko eta asko aztertu ditzakete, irudi erretorikoak adibidez.</p>	
<b>Arazoa:</b>	
<p>Eskatzea edo aurrekoari buruz hitz egitea ez da arazoa, arazoa ondo egitea da. Gizartea ohituegi dago entzun edo esan behar ez lituzkeen laudorioak entzun edo esatera, gauzak inongo errespeturik gabe eskatzera, agurtu gabe hitz egitera... Ohitura hauek denak Santa Eskea lantzearekin batera landu daitezke, horretarako, “sarrera koplak”, “notak” eta “eskabideko koplak” baliatuz.</p>	
<b>Xedea:</b>	
<p>Xedea errespetua lantzea izango litzateke, koplak sortzearekin eta euskararen beste hainbat esparru (metaforak, konparazioak...) lantzearekin batera.</p>	
<b>Helburuak:</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gizartean jarduteko balioak eskuratzea (errespetua, abegikortasuna, enpatia...).</li> <li>- Laudorioak sortzea.</li> <li>- Laudorioen erabilera egokia barneratzea.</li> <li>- Irudi erretorikoak zer diren ikasi eta egitea.</li> <li>- Bestelako hitz jokoak sortzea.</li> <li>- Gauzak behar den bezala eta grazia puntuaz eskatzen ikastea.</li> <li>- Nola agurtzen den ulertzea.</li> <li>- Koplen egitura barneratzea (metrika).</li> <li>- Sortutako laudorioekin “notak” sortzea.</li> <li>- “Eskabideko koplak” egitea ikasgelan ikaskideei nahi dutena eskatzeko.</li> <li>- Klasean sartzeko eta ateratzeko “agur koplak” sortzea.</li> <li>- Sortutako laudorioekin koplak sortzea ikaskideei.</li> </ul>	

**Ataza:**

Hasteko, giza harremanak nola eman behar diren ulertuko dute. Pertsona bat ezagutzean edo norbaitekin topo egitean izan beharreko jarrerak aztertuko dituzte denon artean. Santa Eskeko kopletan eta kalean eman daitekeen bi pertsonen arteko harremanean sortu daitezkeen elkarrizketen arteko aldea txikia dela ohartuko dira, paralelismoa dagoela batetik bestera. Hau da, Santa Eskean hasierako koplak etxeoak agurtzeko izaten dira/kalean elkar agurtzen dugu topo egitean. Santa Eskean etxeoari laudorioak kantatzen zaizkio, nola dagoen galdetzen zaio, etxeo egoeraz.../kalean ere antzeko mekanismoak ematen dira (ai zein txaketa polita!, zer moduz zaude?...). Bukatzeko, Santa Eskean behar dena eskatzen da (jana, edana edota dirua)/kalean zerbait behar bada aurreko biak eta gero eskatzen da edo eskatu beharko litzateke, behintzat. Hau guztia aztertu eta gero, “noten” ezaugarri diren laudorioak sortzen ikasiko dute irudi erretorikoak erabiliz eta noiz eta nola erabili behar diren barneratuko dute. Honekin batera, gauzak abegikortasunez nola eskatu ere ikasiko dute. Bukatzeko, koplak sortzen saiatuko dira: klasera sartzean eta irtetean agur moduan kantatzeko bi, komunera joateko “eskabide koplak” bat eta aurrez sortutako laudorioekin beste bat.

**Jarraibideak:**

- Giza harremanak aztertzea.
- Laudorioak egiten ikastea.
- Laudorioen erabileraren inguruan hausnartzea eta ondorioak ateratzea.
- Irudi erretorikoak lantzea (nahi direnak).
- Gauzak behar bezala eskatzen ikastea.
- Ikasgelan erabiltzeko koplak sortzea.

<b>ARAZO EGOERA</b>	
<b>Izenburua:</b>	Santa Ageda
<b>Ikasgaia:</b>	Gizarte Zientziak
<b>Maila:</b>	Bigarren maila
<b>Testuingurua:</b>	
<p>Santa Eskean herrietan eta hirietan ere ateratzen den arren, baserriz baserri ateratzeko ohitura oso errotua dago. Bertako baratzetatik eta ganadutik lortutako etekinak eskatzera joaten baitziren koplariak. Gaur egun, hirietara lekualdatzeko joerarekin baserriarekiko eta landarekiko lotura galdu dugu neurri handi batean.</p> <p>Gai baten inguruko proiektu handi batek, ate asko ireki ditzake beste gai batzuetara. Kasu honetan, Santa Eskea baliatu daiteke baserriko bizitzaren inguruan ahaztu duguna berriz ikasteko.</p>	
<b>Arazoa:</b>	
<p>Aipatu berri dugun bezala, baserriekiko dugun lotura ez da lehen bezain estua. Gaur egun, haur gutxi dira baserrira maiztasunez joaten direnak, eta are gutxiago, baserri batean bizi direnak. Hori hala izanik, baserriko jakintza galtzen ari da urteen poderioz, transmisioa zaildu egiten baitu herriaren eta landa eremuaren harreman faltak.</p> <p>Ezagutza hori, gainera, ez da mugatzen landa esparruari soilik eragiten dion jakintzara, gure eguneroko bizitzetan garrantzia ikaragarria baitu baserriak eta baserritarrek: erosten ditugun elikagaien jatorri dira, lurra nola zaindu inork baino hobeto dakite.</p>	
<b>Xedea:</b>	
Landa esparruko hiztegi berezia ikastea izango da xedea, eremu semantikoa ahal beste zabalduz.	
<b>Helburuak:</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>-Baserriaz dakiguna komunean ipintzea.</li> <li>-Baserriko esparru desberdinak bereiztea (baratza, korta, etxebizitza...)</li> <li>-Etxean baserritik etorritako zer dugun jakitea.</li> <li>-Euskal Herriko baratzak nolakoak diren ikustea.</li> <li>-Euskal Herrian zein ganadu edukitzea den ohikoa ezagutzea.</li> <li>-Baratzarako zein ganadurako erabiltzen diren lan tresnak ikastea.</li> <li>-Gazta nola egiten den ikastea Itziarreko baserri batean, Andutzenen.</li> </ul>	

**Ataza:**

Ikaskideek baserriaren inguruan dituzten aurre-ezagutzak bilduko dituzte beste ezertan hasi baino lehen. Behin dakitena arbelean dutela, baserriko eremu desberdinak aztertuko dituzte. Baratza eta korta ia baserri denetan dauden eremuak dira, bertan bizi denari bertan bizitzeko aukera ematen diena. Horregatik, bi eremu hauek aztertuko dituzte. Baratza aztertzean, bertan landatzen diren elikagaiez gain, zein lan tresna erabiltzen diren ere ikasiko dute irakasleak emango dizkien ariketa fitxak eta bideoak baliatuz. Berdina egingo da kortako animalia eta lan tresnekin. Batez ere, hiztegia ikastea eta tresna bakoitza zertarako erabiltzen den jakitea izango da helburua. Bukatzeko, Euskal Herriko baserri askotan egiten den zerbait denez, gazta nola egiten den ikasiko dute Itziarreko baserri batean. Horrela, ikasleek ikastetxetik kanpo beste herritarrengandik ikasteko aukera izango dute.

**Jarraibideak:**

- Ikasleen aurre-ezagutzak jasotzea.
- Baserriko eremu desberdinak bereiztea.
- Eremu bakoitza aztertzea bakoitzaren bereizgarriak zeintzuk diren ikusiz.
- Baratzeko elikagaien eta lan tresnen izenak ikastea, baita zertarako balio duten ere.
- Euskal Herriko ganaduaren izenak ikastea eta hauek zaintzeko erabiltzen diren lan tresnen izanak ere.
- Hiztegia barneratu dutela ziurtatzean, gazta nola egiten den ikasiko dute bideo baten laguntzarekin edo inguruko baserri batera txangoa eginda.
- Andutzeneko familiarekin gazta egiten ikastea.

<b>ARAZO EGOERA</b>	
<b>Izenburua:</b>	Santa Eskea
<b>Ikasgaia:</b>	Gizarte Zientziak
<b>Maila:</b>	Lehenengo maila
<b>Testuingurua:</b>	
<p>Ikastetxeko ikasle guztiek Santa Ageda zerbait ikasteko baliatu duten bezala, lehen mailako ikasleek ere izango dute zer ikasia. Adinen mugak kontuan hartuta, helburu xumeak jarri behar zaie lehen mailako ikasleei, errazkerian erori gabe, noski.</p> <p>Santa Eskeko ezaugarri nagusienetako bat koplak da eta ikasleei asko gustatzen zaie eguna iristen denean herriko kaleetan zehar hauek kantatuz aritzea. Baina zer dakite ikasleek koplak buruz? Zer dakite ikasleek bertsoari buruz?</p>	
<b>Arazoa:</b>	
<p>Santa Eskean irten baino lehenago, kantatu beharreko koplekin entseiatzea beharrezkoa da. Normalean, ikastetxeko ikasle guztiak batu eta eskuan koplak esku-orrira hartuta kantu bakoitza behin kantatu eta prest daudela uste izaten dute.</p> <p>Kasu honetan, lehen mailako koplak aztertuko dituzte lehendabizi, entseiatzen den egunean, dena behar bezala atera dadin. Horretarako, koplak ezagutzea zabaldu behar dute.</p>	
<b>Xedea:</b>	
<p>Ikasleek koplak zer diren jakitea, eta hauetan metrikak, intonazioak, erritmoak eta beste hainbat ezaugarriak duten garrantziaz jabetzea.</p>	
<b>Helburuak:</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>-Kopla bat zer den jakitea.</li> <li>-Kopla bat nola egiten den ulertzea.</li> <li>-Santa Eskeko koplaren metrika ezagutzea.</li> <li>-Erritmoa makilarekin markatzen ikastea.</li> <li>-Zein ahotsekin kantatzen diren jakitea.</li> <li>-Errima bat zer den ulertu eta probak egitea.</li> </ul>	



**Ataza:**

Ikasleek koplak aztertuko dituzte. Lehenik eta behin, koplak bat zer den ulertuko dute, hau da, bertsoaren baitako ariketa motzena dela esan daitekeena. Ondoren, koplak bat nola egiten den ikasiko dute. Horretarako, metrika aztertu beharko dute eta errimak ere landu beharko dituzte. Behin koplak zer diren ulertuta eta egiten ikasita (modu teorikoan), Santa Eskean kantatuko dituzten koplak aztertuko dituzte: zein hitz errimatzen dituzten, zenbat errimako koplak diren, zein tonotan abesten diren... Ondoren, koplak guztien erritmoa makilarekin markatzen ikasiko dute, eta bukatzeko, entseiu nagusia egiten denean, euroi utziko zaie makilaren kolpea jotzen.

**Jarraibideak:**

- Koplak bat zer den ulertuko dute.
- Koplak nola egiten diren ikasiko dute (modu teorikoan).
- Metrika lantzeko ariketak egingo dituzte.
- Errimak lantzeko ariketak egingo dituzte.
- Kantatuko dituzten koplak azterketa egingo dute orain arte ikasitakoarekin: zenbat errima dituzten Santa Eskeko koplek eta zeintzuk diren oinak...
- Klasean koplak guztiak kantatzen ikasiko dute, bakoitzaren doinua, makilarekin kolpea...
- Bukatzeko, Entseiuaren egunean beraiek gidatuko dute erritmoa, tonua...

## 4 Ondorioak

Santa Eskea Euskal Herriko hainbat eta hainbat herri eta hiritan errotuta dagoen arren, honen inguruko ezagutza txikia da. Herritarrek usadioa mantentzen dute, baina tradizioa mantentze hutsagatik soilik edo usadioa nondik datorren garbi izan gabe behintzat. Hori hala izanik, Itziarren eta Deban, ohitura honek indar handia duen lekuetan, ikasleek ezagutza hau bereganatu dezaten proiekturen bat aurrera eramatea beharrezkoa litzateke. Aurkeztutako proiektua ondarea jakintza bide bilakatzeko ekarpen txiki bat baino ez da.

Gainera, proiektuak ikasleek Santa Eskearen inguruan gehiago jakitea ekartzeaz gain, arbasoen ohiturak ezagutzeak duen garrantziaz ohartaraziko ditu eta proiektuetan lan egiteak dakartzan aukerak eta abantailak agerian lagako dizkie. Ikastetxe osoak proiektu komun batean lan eginda, komunitatearen zentzua indartuko da eta izate kolektiboa sendotu. Ikasgela bakoitzean maila bereko ikasleek proiektuak eskatzen dituen beharrak banatzen eta helburu bererako bakoitzak bere ardurak betetzen, lan orduak ahalik eta etekin gehien lortzeko nola kudeatu ere ikasiko dute. Hori guztia gutxi balitz, ikasleek eta herritarrek elkarrekin harremantzeko eta batera jarduteko aukera izango dute, batak besteari dakiena erakusteko eta laguntzeko. Kasu honetan, ikasleek Santa Eskeko taldeei ikasi dutena azalduz, aurrez ez dakitenik irakatsiko die eta Santa Eskeko taldeko kideek ikasleak eurekin eramango dituzte kantura baserriz baserri jardutea zer den ikusi eta gozatu dezaten.

Hori guztiaz gain, nahiz eta proiektu hau Itziarren eta Deban aurrera eramateko prestatua izan, beste herri batzuetan ere baliatu daiteke herrietako baldintzetara egokitzeko zenbait aldaketa txiki egiten badira.

## 5 Bibliografia

- Aguirre, A. (1989). Notas sobre la evolución de las fiestas de guipúzcoa. *Cuadernos De Etnología y Etnografía De Navarra*, 21(53), 49-59.
- Aizpurua, M. (2017). "Jon Azpillaga: bertsolari izateko modu bat" *Bertsolari Aldizkaria*. <<http://www.bertsolari.eus/erreportajeak/jon-azpillaga-bertsolari-izateko-modu-bat/>>. [Azken kontsulta: 2018/06/12].
- Arana, A. (2004). Jaietako eskeen erredundantziaren zentzua. *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía*, (26), 221-238.
- Baztarrika, I. (1982). Jaunaren deia. *Euskal teologoen aldizkaria* 78, 69-87.
- Berria. (2018). "Bertsolaritza kultur intereseko ondasuntzat jo du Nafarroako Gobernuak". *Berria*. <[https://www.berria.eus/paperekoa/1777/031/001/2018-06-07/bertsolaritza\\_kultur\\_intereseko\\_ondasuntzat\\_jo\\_du\\_nafarroako\\_gobernuak.htm](https://www.berria.eus/paperekoa/1777/031/001/2018-06-07/bertsolaritza_kultur_intereseko_ondasuntzat_jo_du_nafarroako_gobernuak.htm)>. [Azken kontsulta: 2018/06/12].
- Brisset, D. E. (2009). Investigar las fiestas. *Gazeta De Antropología*, 25(1).
- Epelde, A. (2012). Apuntes sobre el folklore vasco. *Dedica.Revista De Educação e Humanidades*, (3), 113-134.
- Errasti, J. (1991). Algunas danzas representativas de Álava. *Narria: Estudios de artes y costumbres populares*, (53), 60-72.
- Etxebarria Ayesta, J. M. (1999). *Zeberioko kantak*. Auspoa.
- Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza, hizkuntza politika eta kultura saila. (2015). "Xedapen orokorrak". *Eusko Jaurlaritza*. <<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/01/1600141e.shtml>>. [Azken kontsulta: 2018/06/11].
- García, S. (1945). Las "ramas". *Revista de Dialectología y Tradiciones Populares*, 1(3), 579.
- Geertz, C., & Banton, M. (1966). Religion as a cultural system.

- Gil J.M. (1986) "SANTA AGUEDA: Descripción de una fiesta tradicional". *Revista de Folklore*. <<https://funjdiaz.net/folklore/07ficha.php?ID=536>> [Azken kontsulta: 2018/ 04/20].
- Ramirez de Okariz Telleria, I. (2013). *Gertuko kultura ondarearen transmisioa eta hezkuntza eragileak lehen hezkuntzan* (Doctoral dissertation, Mondragón Unibertsitatea).
- Hezkuntza saila, Eusko Jaurlaritza. "Heziberri 2020". Eusko Jaurlaritza. <<http://heziberri.berritzegunenagusia.eus/material-didaktikoa/2-arazo-egoeren-bilduma/>>. [Azken kontsulta: 2018/06/22].
- Homobono, J.I. (1990). Fiesta, tradición e identidad local. *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra*, 22(55), 43-58.
- Homobono J.I. "Un nuevo subsistema festivo y su significación. Cronotopos de la glocalización." <<http://www.fes-sociologia.com/files/congress/10/grupos-trabajo/ponencias/339.pdf>> [Azken kontsulta: 2018/ 04/20].
- Kaltzakorta, J. (2003). Erronda-kantuak eta eske-bertsoak *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak= Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca= Travaux et actes de l'Academie de la Langue basque*, 48(1), 109-166.
- Kaltzakorta, J. "Santa Ageda koplek gerra aurreko txapelketak" <[http://www.karmelaldizkaria.eus/hemeroteka/pdf/2002/03/Karmel\\_2195.pdf](http://www.karmelaldizkaria.eus/hemeroteka/pdf/2002/03/Karmel_2195.pdf)> [Azken kontsulta:2018/04/22].
- Lapuente, L. (1987). Música y danzas en las Améscoas: Su incidencia en la vida social. *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra*, 19(49), 63-70.
- Larrinaga, J. (2018). "Cuestación Tradicional". *Eusko Ikaskuntza*. <<http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/en/cuestacion-tradicional/ar-150008/>>. [Azken kontsulta: 2018/04/30].
- Martínez Montoya, J. (2007). "La fiesta, rito de celebración de las identidades." *Euskonews* & *Media*. <<http://www.euskonews.com/0400zkb/gaia40002es.html>> [Azken kontsulta: 2018/ 04/20].
- Rocca, A. V. (2008). *Zygmunt Bauman: modernidad líquida y fragilidad humana*. Universidad Complutense de Madrid.

Sancho, H. (1951). Fiestas en honor de Santa Agueda, Patrona de las mujeres.  
*Revista de Dialectología y Tradiciones Populares*, 7(3), 446.

Zamacola, J. A. (1988). *Historia de las naciones bascas* (2. ed.) Amigos del Libro Vasco.